# MOTO**RAZR**$^2$ V9

**Erabiltzailearen gida**

# HELLOMOTO

Zure MOTO**RAZR²** V9 3G haririk gabeko telefono berria ezagutzeko, hona anatomia ikasgai azkar bat.






**Ukipen teklak**: Kanpoko pantailan ⊞, ♫ edo ⊡ teklak sakatu eta gero, erabili pantailako ▲ ▼ teklak menuko osagaietaraino mugitzeko, eta erabili tekla adimenduna atzera bueltatzeko edo ateratzeko. Kanpoko pantailan ikono bereziak ikus daitezke mezu bat jaso, dei bat galdu, alarmak jo edo gogorarazle bat aktibatzean.

**Pantaila nagusia**




1. **Telefonoa pizteko, etengailua** sakatuta eutsi segundo batzuez edo pantaila argitu arte.

2. **Erdiko tekla** (·◆·) sakatu menu nagusia irekitzeko.

**Menu nagusia**




3. Nabigazio tekla **gora, behera, ezkerretara, edo eskuinetara sakatu** (·Ọ·) menuko funtzio bat nabarmentzeko.

4. **Erdiko tekla** (·◆·) sakatu aukeratzeko.

Pantaila nagusiko lasterbideak eta menu nagusiaren itxura aldatzeko, ikusi *Hasiera Bizkorrerako Gida*.

Informazio gehiago izateko: Ikusi *Hasiera Bizkorrerako Gida* edo www.hellomoto.com/support.

www.hellomoto.com

Telefono mugikorraren zenbait funtzio zure sare-zerbitzari hornitzailearen ahalmenen eta ezarpenen araberakoak dira. Gainera, baliteke zerbitzari hornitzaileak zenbait funtzio aktibatu ez izatea, edota hornitzailearen sarearen ezarpenek ezaugarrien funtzionalitatea mugatzea. Funtzioen erabilgarritasunaren eta funtzionalitatearen berri izateko, jo beti zerbitzari hornitzailearengana. Funtzio guztiak, funtzionalitatea, bestelako produktu zehaztapenak eta erabiltzailearen gida honetako informazioa eskuragarri dagoen informazio berrienean oinarritzen dira eta gida inprimatu zenean zuzena dela uste da. Motorolak abisu eta betebeharrik gabe edozein informazio edo zehaztapen aldatzeko eskubidea erreserbatzen du.

MOTOROLA eta M logotipo estilizatua AEBetako patente eta marka bulegoan erregistratuta daude. Gainontzeko produktuak edo zerbitzu izenak euren jabeen jabetza dira. Bluetooth markak haien jabeenak dira eta Motorola, Inc. enpresak baimena duelako erabiltzen ditu. Java eta gainontzeko Java oinarriko markak AEBetan eta beste herrialde batzuetan Sun Microsystems, Inc. enpresak dituen markak edo erregistratutako markak dira.

© Motorola, Inc. 2007.

**Kontuz:** Motorolak baimen berezirik eman gabe erradio telefonoan aldaketak eginez gero, erabiltzaileak ekipamendua erabiltzeko ahalmena ezeztatu daiteke.

## Softwarearen Copyright abisua

Eskuliburu honetan azaldutako produktuek Motorolaren edo beste batzuen copyrightdun softwarea izan dezakete memoria erdieroaleetan edo beste euskarri batzuetan. AEBetako eta beste herrialde batzuetako legeek Motorola eta erantzukizun zibileko software hornitzaileei copyrighta duen softwarearentzako zenbait eskubide esklusibo ematen diete, adibidez copyrighta duen softwarea banatzeko edo kopiatzeko eskubide esklusiboa. Ondorioz, Motorola produktuetan dauden copyright softwareak ezin dira aldatu, atzeranzko ingeniaritzan aldatu, banatu edo kopiatu legeak onartzen duena baino haratago. Honetaz gain, Motorola produktuak erosteak ez du esan nahi zuzenean edo ondorioz copyrighta, patenteak edo Motorola eta erantzukizun zibileko software hornitzaileen patente aplikazioak aplikatu behar zaizkien lizentziak ematea-, produktu bat saltzean legeak arautzen duen, esklusiboa ez den eta eskubiderik behar ez duen erabilpen-lizentzia arruntak izan ezik.

# edukia

**menuaren mapa** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 7
**segurtasun informazioa**. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 9
**FCCren oharra** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 14
**erabilera eta zainketa** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 15
**EBrekiko adostasuna** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 16
**birziklatzeari buruzko informazioa**. . . . . . . . . . . 18
**aholkuak eta iradokizunak** . . . . . . . . . . . . . . . . 19
**oinarrizkoak** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 21
- gida honi buruz . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 21
- pantaila . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 22
- testu sarrera . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 25
- bolumena. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 29
- nabigazio-tekla . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 29
- tekla adimenduna . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 29
- ahots komandoak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 30
- kanpoko bistaratzea . . . . . . . . . . . . . . . . . . 32
- esku libre hizlaria. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 33
- kodeak eta pasahitzak . . . . . . . . . . . . . . . . 33
- telefonoa blokeatu eta desblokeatu . . . . . . . 34

**pertsonalizatu** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 35
- telefono hiztuna. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 35
- ordua eta data . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 35
- horma-papera . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 36
- pantaila babesa . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 36
- gaiak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 37
- pantailaren itxura . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 37
- erantzuteko aukerak . . . . . . . . . . . . . . . . . 38

**deiak** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 39
- dei abisua itzali . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 39
- azken deiak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 39
- berriz markatu . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 41
- deiaren ID . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 42
- larrialdi deiak. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 42
- ahots-posta . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 43
- bideo deiak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 43

**konexioak** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 46
- Bluetooth® haririk gabe . . . . . . . . . . . . . . . 46
- kable konexioak. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 51
- software eguneratzeak . . . . . . . . . . . . . . . . 53

**posta elektronikoa eta mezuak** . . . . . . . . . . . . . 54
testu mezuak. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 54
blog . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 56
**beste ezaugarri batzuk** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 58
dei aurreratuak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 58
gida . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 62
mezuak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 66
pertsonalizazioa . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 68
deien iraupena eta kostuak. . . . . . . . . . . . . . 70
esku libreak. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 71
datu deiak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 72
sarea . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 73
antolaketa pertsonala . . . . . . . . . . . . . . . . . . 74
segurtasuna . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 76
aisialdia eta jokoak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 77
**AEKko datuak** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 80
**Osasunaren Mundu Erakundearen informazioa** . . 82
**datuak babestea** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 83
**segurtasuna gidatzerakoan** . . . . . . . . . . . . . . . . 84
**aurkibidea** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 86

# menuaren mapa

## menu nagusia

**Iratzargailua**

**Tresnak**
- USIM *
- Kalkulagailua
- Egutegia
- WebShare
- Markatze zerbitzuak
  - Markatze mugatua *
  - Zerbitzu-markatzea *
  - Markatze bizkorra
- Mundu erlojua
- Oharrak

**Azken deiak**
- ([*] edo [#] sakatu zerrendan zehar mugitzeko)

**Web sarb.**
- Arakatzailea
- Laster markak
- Historia
- Jo orrira
- Arakatzaile konfigur.
- Web saioak *
- Gordetako orriak

**Mezuak**
- Sortu mezua
- Ahots bidezko posta
- Mezuen sarr. erretilua
- Mezu elektronikoa
- Arakatzaile mezuak
- Informazio zerbitz. *
- Irteera-erretilua
- Zirriborroak
- Txantiloiak

**Multimedia**
- Media-bilatzailea
  - Musika
  - Irudiak
  - Bideoak
  - Ahots oharrak
  - Abisu seinaleak
  - Hondoko irudiak
- Gaiak
- Kamera
- Bideokamera
- Ahots grabaketa

**Joko eta aplikazioak**

**Gidaliburua**

**Ezarpenak**
- (hurrengo orrialdea ikusi)

**Abisu seinale estiloak**
- Estiloa
- *(estiloa)* Xehetasuna

**Konexioa**
- Bluetooth lotura
- USB ezarpenak
- MOTOSYNC™ *

**Egutegia**

* hautazko funtzioak

Hau da menu nagusiaren diseinu estandarra. **Baliteke zure telefonoaren menua guztiz berdina ez izatea.**

**Pantaila nagusiko lasterbideak eta menu nagusiaren itxura aldatzeko, ikusi *Hasiera bizkorrerako gida*.**

## ezarpenen menua

**Pertsonalizatu**
- Hasierako pantaila
- Menu nagusia
- Ahots markatze konfig.
- Azala
- Agurra
- Horma papera
- Pantaila babesa
- Markatze bizkorra
- Soinu ezarpenak

**Dei desbideratzea** *
- Ahots-deiak
- Bideo deiak
- Ezeztatu guztiak
- Desbiderat. egoera
- Sakatu desbideratutako zenbakira deitzeko

**Dei jasoen konfigur.**
- Data eta ordua *
- Dei jasoen tenporiz.
- Dei-kostuaren konf. *
- Nire dei identif.
- Erantzun-aukerak
- Deia zain
- Alerta mezua

**Hasierako konfigur.**
- Ordua eta data
- Markatze lasterra
- Auto. mark. berriz
- Bistaratze muga
- Atzeko argia
- Argiak kargatzen
- Korritzea
- Testuaren markatzea
- Hizkuntza
- Bateria aurreztea
- Argitasuna
- DTMF
- Berrezartze orok.
- Garbitze orokorra

**Softwarea eguneratzea**
- Instalatu softwarea
- Bilatu eguneratzeak

**Telefono-egoera**
- Nire tel. zk.ak
- Kreditu-informazioa/ Kreditu erabilgar. *
- Linea aktiboa *
- Bateria-neurgailua
- Erabiltzaile kontuak
- Deskargatu kokalekua
- Biltegi gailuak
- Bestl. informazioa

**Entzungailua**
- Automat. erantzun
- Seinale aukerak
- Ahots-markatzea

**Autoko ezarpenak**
- Automat. erantzun
- Autom. esku libr.
- Itzaltz. atzerapena
- Kargagailu-denbora

**Hegaldi modua**
- Hegaldi modua
- Galdetu piztean

**Sarea**
- Sare berria
- Sare-konfigurazioa
- Erabilgarri diren sareak
- Nire sare-zerrenda *
- Zerbitzu-tonua
- Dei ezeztat. tonua

**Segurtasuna**
- Telefonoa blokeatu
- Kanpoko tekla blokeatz.
- Blokeatu aplikaz.
- Erakuts sarrera pribat./ Ezkuta sarrera pribatuak
- Markatze mugatua *
- Murriztu deiak *
- Deiak debekatzea *
- SIMeko PINa
- SIMeko PIN2
- Pasahitz berriak
- Ziurtagiri kudeaketa *

**Java™ ezarpenak**
- Java sistema
- Ezaba aplikazio guztiak
- Bibrazio aplikazioa
- Bolumen aplikazioa

* hautazko futzioak

# Informazio orokorra eta segurtasun informazioa

**Atal honetan, zure sakelakoaren erabilera seguru eta eraginkorrari buruzko informazio garrantzitsua dago. Irakur ezazu informazio hau zure sakelakoa erabili aurretik.***

## Irrati maiztasuneko (IM) energiaren eraginpean egotea

Zure sakelakoak transmisorea eta hargailua ditu. Piztuta dagoenean ("ON"), IM energia jasotzen eta igortzen du. Zure sakelakoa erabiltzerakoan, deiaz arduratzen den sistemak, telefonoa igortzen ari den potentzia maila kontrolatuko du.

Motorola sakelakoa zure herrialdeko arauak betetzeko diseinatuta dago.

* Agiri honetan eskaintzen den segurtasun informazio orokorrak, 2007ko maiatzaren 1ean argitaratutakoa ordezkatzen du.

## Erabiltzean aintzat hartu beharreko neurriak

Sakelakoaren errendimendurik onena bermatzeko eta pertsonek jasotzen duten IM energia mailak indarrean diren arauetan proposatutako jarraibideen barruan daudela egiaztatzeko, jarraitu ondoko argibideak.

### Kontu izan kanpoko antenarekin

Zure sakelakoak kanpoko antenarik badu, Motorolak hornitutako edo homologatutako ordezko antena erabili. Baimenik gabeko antenek, aldaketek edo gehigarriek sakelakoari kalteak eragin diezazkiokete. Kasu horietan baliteke zure herrialdeko baldintza arautzaileak ez betetzea.

EZ hartu sakelako kanpo antenarik ERABILTZEN ari zarenean. Antena hartuz gero, deiaren kalitateari eragiten zaio eta sakelakoak behar baino potentzia maila altuagoan jardutea eragin dezake.

### Produktua nola erabili

Deitzean edo deiak jasotzean, sakelakoa finkoa izango balitz bezala erabili.

Sakelakoa soinean eramatean, Motorolak baimendutako klip, euskarri, matxarda, zorro edo tresna batean jarri. Motorolak hornitutako edo baimendutako garraio osagarririk gabe erabiltzerakoan edo sakelakoa lepotik hari baten bidez zintzilik eramaterakoan, sakelakoa eta antena gorputzetik 2,5 zentimetrora gutxienez mantendu.

Sakelako funtzioren bat erabiltzen duzunean, harizko osagarria izan edo ez izan, sakelakoa eta antena gorputzetik 2,5 zentimetrora gutxienez mantendu.

Motorolak hornitu edo homologatu gabeko osagarriak erabiliz gero, sakelakoak arauetan ezarrita dauden IM energiaren eraginari dagozkion mugak gaindi ditzake. Motorolak hornitutako edo homologatutako osagarrien zerrenda honako webgune honetan aurki dezakezu: `www.motorola.com`.

## IM energia: interferentziak eta bateragarritasuna

Gailu elektroniko gehienek kanpoko iturrietako IM energiak eragindako interferentziak izan ditzakete, egoki babestuta edo diseinatuta ez badaude. Hainbat kasutan, sakelakoak beste sakelako batzuetan interferentziak eragin ditzake.

### Erabilgarritasuna honako bi baldintza hauen araberakoa da:

1. Gailu honek ez du interferentzia kaltegarririk sortu behar.
2. Gailu honek, jasotako interferentziak onartu behar ditu, nahi ez direnak barne.

### Jarraitu argibideak interferentzia arazorik ez izateko

Sakelakoa itzal ezazu hala eskatzen den tokietan.

Hegazkinetan, sakelakoa itzal ezazu tripulazioak hala eskatzen dizunean. Sakelakoak hegaldietarako modua edo antzeko ezaugarririk badu, tripulazioari galde iezaiozu eralbitzea posible ote den.

## Gailu medikoen inplanteak

Inplanterik baduzu (taupada markagailu edo desfibrilatzailea), medikuari galdetu sakelakoa erabili aurretik.

Gailu medikoen inplanteak dituzten pertsonek honako neurriak hartu behar dituzte aintzat:

- BETI eduki sakelakoa inplantetik 20 zentimetro gutxienez, hau piztuta dagoenean.
- EZ gorde sakelakoa bularreko poltsikoan.

- Inplantea dagoen kontrako aldeko belarria erabili balizko interferentziak txikiagotzeko.
- Interferentziak gertatzen ari direnaren susmoa balego, sakelakoa itzal ezazu.

Inplanteen fabrikatzailearen oharrak irakurri eta jarraitu. Sakelakoa gailu medikoaren inplantearekin batera erabiltzeari buruzko dudarik baduzu, zure osasun zerbitzuen hornitzailearekin kontsultatu.

# Gidatzean aintzat hartu beharreko neurriak

Sakelakoa gidatzen duzun bitartean erabiltzeari dagokionez, zure herrialdean diren lege eta arautegiak kontsultatu. Horietan xedatu bezala jokatu behar duzu beti.

Gidatu bitartean sakelakoa erabiltzen duzunean, aintzat hartu honako hau:

- Arreta handia jarri gidatzen. Sakelakoa erabiltzeak distrai zaitzake. Ez ezazu erabili, gidatzeko orduan.
- Behar izatekotan, erabil ezazu esku libreen funtzioa.
- Baldintzek hala eskatzen badute, errepidetik irten zaitez eta aparkatu ibilgailua, dei bat egin edo jaso baino lehen.
- Ez jarri sakelakoa "airbag" aren gainean.

Gidatzean sakelakoa modu arduratsuan erabiltzeko oharrak, "Erabilera arduratsua gidatzean" atalean eta Motorolaren web orrialdean aurki ditzakezu: **www.motorola.com/callsmart**.

**Oharra:** Gidatzean sakelakoa erabiltzea, oharkabetasunen eragilea izan daiteke. Deia amaitu, baldin eta ezin badiozu gidatzeari arreta jarri. Bestalde, haririk gabeko gailuen eta osagarrien erabilera debekatuta edo murriztua dago hainbat lekutan. Produktu horien erabileraren lege eta arauak bete beti.

# Erabilerari buruzko oharrak

Hainbat leku publikotan, hala nola osasun erakundeetan, edo lehergailu bidezko eztandak egon daitezken lekuetan, sakelakoen erabilerari buruzko seinaleak obeditu.

## Leherketak gerta daitezkeen tokiak

Leherketak gerta daitezkeen aipatutako eremuetan seinaleak egon ohi dira. Bada zenbait salbuespen: erregaiz hornitzeko tokiak, adibidez, erregaiak edo produktu kimikoak garraiatzeko edo biltegiratzeko instalazioak; airean substantzia kimikoak edo partikulak (zuntz sukoiak, hauts erregarria edo metal hautsak) dituzten tokiak.

Itzal ezazu sakelakoa leherketak gerta daitezkeen eremuetan sartu aurretik. Ez kendu, jarri edo kargatu bateriak toki horietan. Bertan leherketa edo sua eragin dezaketen txinpartak sor litezke.

## Idazkina

Baterian, kargagailuan edo sakelakoan, ondorengo sinboloak egon daitezke:

| Sinboloa | Definizioa |
|---|---|
|  | Segurtasunari buruzko informazio garrantzitsua adierazten du |
|  | Sakelakoa edo bateria ezin daitezke sutara bota. |
|  | Gerta daiteke bateria edo sakelakoa tokiko legeen arabera birziklatu behar izatea. Jo ezazu tokiko eskudun agintariengana, informazio gehiago nahi izanez gero. |
|  | Bateriak eta sakelakoak ez dira zaborrontzira bota behar. |
| ⊖ Li Ion BATT ⊕ | Zure sakelakoak litio ioizko barneko bateria du. |
|  | Bateria, kargagailua eta sakelakoa ez dira busti behar. |
|  | Musika edo bestelako soinuak, entzungailuekin eta bolumen altuan entzunez gero, belarria kalte dezakete. |

## Bateriak eta kargagailuak

**Kontuz:** Baterien tratamendu edo erabilera desegokia arriskutsua izan daiteke eta sutea, leherketa, isuria eta beste hainbat arrisku sor ditzake. Informazio gehiago lortzeko, gida honetako "Segurtasuna eta bateriaren erabilera" atalera jo ezazu.

# Asfixia arriskua

Sakelakoen edo osagarrien pieza desmuntagarriak arriskutsuak izan daitezke, haur txikiak ito bailitezke. Gorde itzazu sakelakoak eta osagarriak haur txikiengandik urrun.

# Beirazko osagaiak

Sakelakoaren zenbait osagai beirazkoak izan daitezke. Beira hori apurtu egin daiteke produktua gainazal gogor baten kontra erortzen bada edo kolpe handia hartzen badu. Beira apurtzen bada, ez saiatu kentzen. Ez ezazu sakelakoa erabili harik eta zerbitzu teknikoak  beira ordezkatu arte.

# Epilepsia krisiak edo zorabioak

Zenbait pertsonak epilepsia krisiak edo zorabialdiak izan ditzake dirdir egiten duten argien erruz, adibidez, telebista ikusten dutenean edo bideojokoekin jolasten dutenean. Halako epilepsia krisiak edo zorabialdiak, gainera, aurrez inoiz izan ez dituztenei ere gerta dakizkieke.

Epilepsia krisi edo zorabialdirik izan baduzu, edo zure senitartekoren bati halakorik gertatu baldin bazaio, galde iezaiozu medikuari sakelako bideojokoekin aritu aurretik.

Medikuarengana jo, baldin eta ondorengo sintomaren bat baduzu: konbultsioak, begi edo giharretako konbultsioak, konortea galtzea, nahi gabeko mugimenduak egitea edo desorientazioa. Gomendagarria da pantaila begietatik distantzia jakin batera egotea eta gelako argiak piztea. Orduro 15 minutuz atseden hartzea ere gomendagarria da. Oso nekatuta bazaude, ez ezazu sakelakoa erabili.

# Mugimendu errepikakorrak

Ekintza errepikakorrak egitean, eskuetan, besoetan, sorbaldan, lepoan edo gorputzeko beste atal batzuetan ondoeza senti daiteke. Erabiltzean edo erabiltzeari utzitakoan ondoezik jarraitzen baduzu, medikuarengana jo.

# FCCren oharra erabiltzaileentzat

**Ondorengo adierazpen hau FCC (Komunikazioen Batzorde Federala) erakundearen onespena jaso duten produktu guztiei dagokie. Aplikagarri zaien produktuek FCCren logotipoa edo FCCren identifikazioa etiketan izango dute honako formatu honetan: 'FCC-ID:xxxxxx'.**

Motorolak ez du onartuko gailu honetan erabiltzaileak egindako aldaketarik. Edozein aldaketak, erabiltzaileak ekipamendua erabiltzeko duen baimena baliogabe lezake. Ikus 47 CFR xedapeneko 15.21 sekzioa.

Gailu honek, FCCren arautegiko 15. idatz zatian xedatutakoa betetzen du. Gailu hau erabiltzeko, ondorengo bi baldintzak bete behar dira: (1) gailu honek ez du interferentzia kaltegarririk sortu behar; (2) gailu honek, edozein interferentzia onartu beharko luke, baita nahi ez bezalako funtzionamendua eragin dezakeenak ere. Ikus 47 CFR xedapeneko 15.19(3) sekzioa.

Ekipo honi probak egin zaizkio B klaseko gailu digitaletarako ezarritako arauak betetzen dituela egiaztatuz, FCCren arautegiko 15. idatz zatian xedatutakoari jarraituz. Arau horien helburua, bizilekuko instalazio batean interferentzia kaltegarrien kontrako babesa ematea da. Ekipo honek irrati frekuentzia energia sortzen eta erabiltzen du. Irratifrekuentzia energia ere erradia lezake. Argibideak jarraituz instalatu eta erabili ezean, interferentzia kaltegarriak sor ditzake irrati bidezko komunikazioetan. Hala ere, ezin da ziurtatu instalazio jakin batean interferentziarik izango ez denik. Ekipo honek irratian edo telebistan interferentzia kaltegarriak eragiten baldin baditu (hori jakiteko, itzali ekipoa eta piztu ezazu berriro), erabiltzaileari interferentzia zuzentzen saia dadin gomendatzen zaio ondorengo neurrietariko bat edo gehiago erabiliz:

- Antena hartzailearen orientazioa edo posizioa aldatzea.
- Ekipoa irratitik edo telebistatik urruntzea.
- Ekipoa beste argindar hartune batean konektatzea, irratia edo telebista konektatuta dagoen hartunean konektatu beharrean.
- Banatzaileari edo irrati nahiz telebista teknikari bati laguntza eskatzea.

# Erabilera eta zainketa

Zure Motorola telefonoa babesteko, egiaztatu honako hauetatik urrun dagoela:



**Edozein motatako likidoak**

Ez jarri sakelakoa uraren, euriaren, hezetasun handiaren, izerdiaren edo bestelako hezetasun moten eraginpean. Bustiko balitz, ez saiatu lehortzen ile lehorgailua erabiliz, horrek telefonoa honda lezakeelako.



**Hautsa eta zikinkeria**

Ez jarri sakelakoa hautsaren, zikinkeriaren, hondarraren, janariaren edo bestelako material desegokien eraginpean.



**Hotz edo bero handiak**

Sakelakoa 0°C/32°F eta 45°C/113°F bitartean mantentzen ahalegindu.



**Garbitzeko produktuak**

Zure sakelakoa garbitzeko, zapi leun eta lehorra erabili. Ez erabili alkoholik edo bestelako garbitzeko produkturik.



**Mikrouhinak**

Ez zaitez saia sakelakoa mikrouhin labean lehortzen.



**Zorua**

Ez utzi sakelakoa erortzen.

# Europar Batasuneko jarraibideen gaineko adostasun adierazpena

MOTOROLA

ADOSTASUN ADIERAZPENA - 1890/ 2000 Arautegia, 2005eko azaroak 20

| | |
|---|---|
| Erreferentzia | LV012/05/356393/D |

Guk, Motorola Inc enpresak, US Highway N 45, IL 60048, AEBak helbidea duenak, erantzukizuna gure gain hartuta, adierazi nahi dugu honako produktu honek

| | |
|---|---|
| Izena/Mota | MOTORAZR V9 |
| Deskribapena | Bluetooth-a duen UMTS/ HSPDA gailua |
| Oharra | |

arau hauek betetzen dituela:

- 1999/5/EC jarraibideko funtsezko baldintza guztiak eta gainerako xedapen garrantzitsuak
- Europar Batasuneko gainerako jarraibide garrantzitsuak




Aurreko taulan Produktuaren Onarpen Zenbaki tipikoaren adibidea ikus daiteke.

Produktu honek betetzen ditu honako arauzko agiri edo estandarrak, bereziki, jarraibidearen 3. Artikuluan agertutako baldintza espezifikoak.

| | |
|---|---|
| 3.1.a artikulua | EN50360:2001,<br>EN60950:2000 |
| 3.1.b artikulua | EN 301 489-01 V1.4.1 : 08.2002<br>EN 301 489-17 V1.1.1 : 09.2000<br>EN 301 489-07 V1.2.1 : 08-2002 |
| 3.2. artikulua | ETSI EN 301 511 V9.0.2<br>EN 300 328-2 V1.2.1 |
| 10. artikulua | V. eranskinarekiko adostasun prozesua, aurretik aurkezturiko jarraibidearen funtsezko baldintza guztiei aplikatu zaie. Horretarako, BABT0168 erabili da. |

Lars S. Nielsen
Zuzendaria
Motorola, GmbH.
Husumerstrasse 251
D242941 Flensburg
Alemania
Telefonoa: +49 461 803 0
Faxa: +49 461 803 1829
EHelbide elektronikoa: `rtte@motorola.com`



(ordezkari baimenduaren sinadura)

Agiri hau ez da baliozkoa homologazio edo inportazio froga gisa baldin eta Motorola Inc. enpresaren idatzizko onarpenik ez badu.

# Birziklatu ingurumena zaintzeko



Ez ezazu etxeko zaborrarekin batera bota, ikur hau badaukan Motorola-ren edozein produktu.

## Sakelakoa eta osagarriak birziklatzea

Ez itzazu sakelakoak edota horien osagarri elektronikoak etxeko zaborrarekin batera bota (adibidez: kargagailuak, entzungailuak edo bateriak). Tokian tokiko agintarien eta birziklatze / bilketa plan nazionalaren arabera egin beharko da. Nahi izanez gero, gailu mugikorrak edo osagarri elektronikoak zeure herrialdeko, Baimendutako Motorola Zerbitzu Zentro batean uzteko aukera izango duzu. Motorolak onartutako birziklatze eta bilketa plan nazionalari eta Motorolaren birziklatze jarduerei buruzko informazio zehatza hemen aurki dezakezu: **www.motorola.com/recycling**.

## Sakelakoaren estalki eta erabiltzailearen gidaren birziklatzea

Produktuaren estalkia eta erabiltzailearen gidak birziklatze eta bilketa plan nazionalaren arabera bota behar dira. Informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitez harremanetan lekuan lekuko agintariekin.

# aholkuak eta iradokizunak

*Pantaila nagusian* (22. orrialdean ikusi):

| Zertarako: |
|---|
| **dei abisuak aldatu** |
| Telefonoa itxita dagoenean, sakatu bolumen tekla bat tonu estiloa ikusteko, sakatu tekla adimenduna estiloa aldatzeko, eta ondoren sakatu bolumen tekla bat aldaketa gordetzeko. |
| **ahots-posta ikusi** |
| Zure ahots-posta ikusteko, [1] sakatuta mantendu. |
| **azken deiak ikusi** |
| [⊙] sakatu azken deien zerrenda ikusteko, ondoren [*] edo [#] sakatu **Egindako deiak**, **Dei Jasoak** edo **Huts egindako deiak** ikusteko. |

| Zertarako: |
|---|
| **telefono zenbaki bat gorde** |
| Telefono zenbaki bat sartu, ondoren **Gorde** sakatu. |
| **gidako sarreretara joan** |
| Zure gidan, sakatu zenbaki tekla bat teklako letraz hasten diren sarreretara joateko. Adibidez, [5] hiru aldiz sakatu "**L**" letraz hasten den lehendabiziko sarrerara joateko. |
| **abestietara joan** |
| Musika erreproduzigailuaren abesti zerrendan, [*] edo [#] sakatu orrialdean gora edo behera joateko. |

| Zertarako: |
|---|
| **ahots komandoak erabili**<br><br>⓪ sakatuta mantendu ahots-komandoen zerrenda bat irekitzeko, eta ondoren zerrendako komandoetako bat esan. |
| **pantaila nagusira itzuli**<br><br>Menu, mezu edo beste pantaila batean, ⓪ sakatu dena bertan behera uzteko eta pantaila nagusira itzultzeko. |

# oinarrizkoak

Ikusi 1. orrialdea telefonoaren oinarrizko diagrama ikusteko.

Bateria, SIM txartela eta memoria txartela instalatzeko, ikusi *Hasiera Bizkorrerako Gida*.

## gida honi buruz

Gida honek menuaren funtzio bat nola ireki behar den erakusten du:

**Bilatu:** > **Mezuak** > **Sortu mezua**

Honela, pantaila nagusian:

1 Menua irekitzeko *erdiko tekla* sakatu.

2 *Nabigazio tekla* sakatu **Mezuak** aukerara mugitzeko eta *erdiko tekla* sakatu aukeratzeko.

3 Nabigazio tekla sakatu **Sortu mezua** aukerara mugitzeko eta erdiko tekla sakatu aukeratzeko.

| ikurrak | |
|---|---|
| | Honek funtzioaren sarearen, SIM txartelaren edo harpidetzaren menpe dagoela eta eskualde guztietan ez dela erabilgarri izango esan nahi du. Informazio gehiago izateko, galdetu zerbitzu-hornitzaileari. |
| | Honek funtzioak aukerako osagarri bat behar duela esan nahi du. |

# pantaila

*Pantaila nagusia* telefonoa pizten duzunean agertzen da.




**Oharra:** Zure pantaila nagusia eta erakusten dena ezberdinak izan daitezke, zerbitzu-hornitzailearen arabera.

Pantaila nagusian zauden bitartean, zenbaki bat markatzeko, sakatu zenbaki teklak eta ⓢ.

Sakatu ·Ọ· gora, behera, ezkerrera edo eskuinera pantaila nagusian zauden bitartean oinarrizko menuko funtzioak irekitzeko. Pantaila nagusiaren lasterbideak eta menu nagusiaren itxura aldatzeko, ikusi *Hasiera Bizkorrerako Gida*.

Menua irekitzeko *erdiko tekla* ·●· sakatu.

*Funtzio-teklen etiketek* funtzio-tekla bakoitzaren funtzioak erakusten dituzte. Funtzio-teklen kokalekuak jakiteko, zoaz 1. orrialdera.

Pantaila nagusiaren goialdean egoera adierazleak ikus daitezke:



1 **Seinalearen indar adierazlea** – Barra bertikalek sarearen konexioaren indarra adierazten dute. Ezin duzu deirik egin edo jaso  edo  agertzen denean.

2 **Sare adierazlea** – Zure telefonoak 3G () sare bat erabiltzen duenean agertzen da, *GSM Evolution-erako datu hobetuak* (EDGE ), edo *pakete bidezko irrati-zerbitzu orokorra* (GPRS ).

3 **Datu adierazleak** – konexioaren egoera adierazten du.

| | |
|---|---|
| / | datu-transferentzia pakete segurua/ez segurua |
| / | aplikazio konexio segurua/ez segurua |
| / | *Zirkuitu-kommutazio datu dei* (CSD) segurua/ez segurua |
| / | USB konektatu/transferitu |
| | erantzun automatikoa |
| | MOTOSYNC |
| | *Abiadura bizkorrean deskargatzeko lotura paketerako sarbidea* (HSDPA) datuen transferentzia |
| | Bluetooth® konexioa aktibo dago |

4 **Ibiltaritza adierazlea –** zure telefonoa sare bila dagoenean edo berezko sarea ez den beste bat erabiltzen ari denean agertzen da. Adierazleek izan dezaketena:

| | |
|---|---|
| Berezko 2G | 2G ibiltaritzan |
| Berezko 2.5G | 2.5G ibiltaritzan |
| Berezko 3G | 3G ibiltaritzan |

Berezko HSDPA — HSDPA ibiltaritzan

HSDPA *Abiadura bizkorraz deskargatzeko loturaren paketerako sarbidea da*, sare batzuetan erabilgarri dagoena.

5 **Linea aktibo adierazlea** – agertzen da dei aktiboa adierazteko, edo deien desbideratzea gaituta dagoela adierazteko. Bi linea gaituta dituzten SIM txartelen adierazleek honakoa izan dezakete:

| | |
|---|---|
| 1. linea aktibo | 1. linea aktibo, deien desbideratzea gaituta |
| 2. linea aktibo | 2. linea aktibo, deien desbideratzea gaituta |

6 **Oroigarri adierazlea** – agertzen da alarma bat edo egutegi-gertaera baten abisu bat ezartzen duzunean. Java™ aplikazio bat aktibo dagoenean agertzen da.

7 **Mezu adierazlea** – Mezu berri bat jasotzen duzunean agertzen da. Adierazleek izan dezaketena:

| | |
|---|---|
| testu-mezua | ahots-mezua |
| ahots eta testu-mezua | |

8 **Tonu estilo adierazleak** – Tonuaren estilo ezarpenak erakusten ditu.

| | |
|---|---|
| ozena | dardaratu eta jo |
| leuna | dardaratu, gero jo |
| dardaratu | isilik |

9 **Bateria maila adierazlea** – Barra bertikalek bateriaren karga maila adierazten dute. Pantailan Bateria gutxi agertzen denean kargatu zure bateria.

# testu sarrera

Funtzio batzuk testua sartzen uzten dizute.

Testu adierazleen deskripzio-etarako, ikusi hurrengo atala.




Kurtsore dirdiratsuak txertatze-puntu bat adierazten du.

Testua idatzi eta gero, **Utzi** tekla sakatu hartzaileak sartzeko.

Sakatu **Aukerak** tekla azpi-menua irekitzeko.

Sakatu # testu sarrera ikuspegian sarrera modua aukeratzeko:

| sarrera moduak | |
|---|---|
| edo **1** | **Lehena** testu sarreraren modua edozein iTAP™ edo estandar **1** modutan ezarri daiteke. |
| edo **2** | **Bigarrena** testu sarreraren modua edozein iTAP™ edo estandar **2** modutan ezarri daiteke, edo **Bat ere ez** ezarri bigarren sarrera modurik nahi ez baduzu. |
| **123** | **Zenbakizkoa** moduan soilik zenbakiak sartu daitezke. |
| **@%** | **Ikurra** moduan soilik sinboloak sartu daitezke. |

Lehenengo eta bigarren testu sarrera moduak ezartzeko, sakatu **Aukerak** > **Testu konfigurazioa** testu sarreraren ikuspegi batean eta aukeratu **Lehen testua** edo **Bigarren testua**.

## iTAP™ eta estandar moduen iradokizunak

- Sakatu [0] testu sarreraren ikuspegi batean eta aldatu testuaren letrak letra larrietara (**ABC**), letra xeheetara (**abc**), edo soilik hurrengo letra larria izateko (**Abc**).
- Zenbakiak azkar sartzeko, sakatu eta mantendu zenbaki tekla bat momentu batez eta aldatu zenbaki modura. Sakatu zenbaki teklak nahi dituzun zenbakiak sartzeko. Sartu zuriunea berriz iTAP edo Tap modura aldatzeko.
- Sakatu [1] puntuazioa edo beste karaktere batzuk sartzeko.
- Sakatu ◆ kurtsore dirdiratsua mugitzeko eta testu-mezua idazteko edo editatzeko.
- Sakatu [⌫] kurtsorearen ezkerreko karakterea ezabatzeko. Mantendu sakatuta [⌫] hitza ezabatzeko.
- Mezua bertan behera uzteko, sakatu [⏻].

# iTAP™ modua

Sakatu [#] testu sarrera ikuspegi batean iTAP modura aldatzeko. 1📖 edo 2📖 ikusten ez badituzu, sakatu **Aukerak** > **Testu konfigurazioa** iTAP modua lehenengo edo bigarren testu sarrera modu gisa ezartzeko.

iTAP moduan letra bakoitza behin sakatuz hitzak idazten uzten dizu. ITAP softwareak teklak sakatzea eta hitz arruntak parekatzen ditu eta hitza idazten duzun heinean hitz osoa iragartzen du.

Adibidez, [7] [7] [6] [4] sakatzen baduzu, pantailan honakoa agertzen da:




Hitz ezberdin bat nahi baduzu, (adibidez **Progresio**), teklak sakatzen jarraitu gainontzeko letrak sartzeko.

**Iradokizuna:** Ez larritu iTAP nola erabiltzen den ahazten bazaizu. Testu sarrerako pantailan, sakatu **Aukerak** > **Testu konfigurazioa** > **Testu tutoriala** azalpen bat ikusteko.

## estandar eta estandar hedatu moduak

Sakatu [#] testu sarrera ikuspegi batean estandar modura aldatzeko. **Abc1** edo **Abc2** ikusten ez badituzu, sakatu **Aukerak** > **Testu konfigurazioa** estandar modua lehenengo edo bigarren testu sarrera modu gisa ezartzeko.

Testua **TAP** moduan idazteko, sakatu teklatuko tekla bat behin eta berriz teklako letra eta zenbaki zikloa mugitzeko. Errepikatu pauso hau letra bakoitza idazteko. **Tap hedatua** moduak berdin funtzionatzen du, baina karaktere eta ikur berezi gehiago dauzka.

Adibidez, 7 behin sakatzen baduzu, pantailan honakoa agertzen da:




Esaldi bakoitzeko lehendabiziko letra larria da. Beharrezkoa izanez gero, sakatu behera karakterea letra xehetara aldatzeko kurtsorea hurrengo kokalekura mugitu aurretik.

## zenbakizko modua

Sakatu # testu sarrera ikuspegi batean **123** ikusi arte. Sakatu zenbaki teklak nahi duzun zenbakiak sartzeko.

**Lasterbidea:** Zenbaki tekla sakatuta eduki dezakezu une baterako iTAP™ edo Tap moduetatik zenbaki modura aldatzeko. Sakatu zenbaki teklak nahi dituzun zenbakiak sartzeko. Sartu zuriunea berriz iTAP™ modura aldatzeko.

## ikur modua

Sakatu # testuaren sarrera ikuspegi batean zure pantailan ikur zerrenda bat agertu arte. Mugitu nahi duzun ikurreraino, ondoren sakatu *erdiko tekla* .

# bolumena

Bolumen teklak sakatuz:



- itzali jaso den deiaren tonua
- aurikularraren bolumena deietan zehar aldatu
- pantaila nagusitik deien bolumena aldatu

  **Iradokizuna:** Batzuetan isiltasuna urrea da benetan. Horregatik zure doinua **Dardaratu** moduan edo **Isilik** moduan azkar ezar dezakezu pantaila nagusian zaudenean bolumena jaisteko tekla sakatuta edukiz. Pantaila nagusian # sakatuta edukiz, **Isilik** modura aldatu dezakezu berriz.

Telefonoa itxita dagoenean dei bolumena aldatzeko, zoaz *Hasiera bizkorrerako gidara*.

# nabigazio-tekla



Sakatu *nabigazio tekla* gora, behera, ezkerrera edo eskuinera pantailako osagaietan mugitzeko. Osagai bateraino mugitu zarenean, sakatu *erdiko tekla* osagaia aukeratzeko.

# tekla adimenduna

Tekla adimendunaren bidez gauzak beste era batera egin daitezke. Adibidez, menuko osagai bat aukeratzeko, tekla adimenduna sakatu dezakezu (*erdiko tekla sakatu beharrean* ). Tekla adimendunak normalean *erdiko teklaren funtzio bera egiten du* . Tekla adimenduna aurkitzeko, ikusi 1. orrialdea. Tekla adimendunak pantaila nagusian daukan funtzioa aldatzeko, ikusi *Hasiera Bizkorrerako Gida*.

**Oharra:** Telefonoa ixtean, tekla adimendunak kanpoko teklak blokeatu eta desblokeatu ditzake, eta kanpoko bistaratzean menuetatik kanpora eramaten zaitu.

# ahots komandoak

Ahots komandoen bidez telefonoari aginduak eman diezazkiokezu.

**Oharra:** Ahots komandoak ez dira hizkuntza guztiekin bateragarriak. Behean agertzen diren gaztelaniako komandoak erabil ditzakezu euskarazko telefonoan.

1 Mantendu sakatuta [⊙].

Telefonoak agindu bat emateko eskatzen dizu.

2 Eman zerrendako ahots-agindu bat (ordeztu *555-1212* telefono zenbaki batez, eta ordeztu *Juan Pérez* gidako izen batez):

| ahots komandoak |
|---|
| **"Llamar** *555-1212***"** |
| **"Llamar** *Juan Pérez***"** |
| **"Enviar Email a** *Juan Pérez***"** |
| **"Enviar nota de voz** *555-1212***"** |
| **"Enviar nota de voz** *Juan Pérez***"** |
| **"Enviar mensaje a** *555-1212***"** |
| **"Enviar mensaje a** *Juan Pérez***"** |
| **"Buscar** *Juan Pérez***"** |
| **"Ir al buzón de voz"** |
| **"Ir a la cámara"** |
| **"Ir a rellamada"** |
| **"Ir a llamadas recibidas"** |

| ahots komandoak |
| --- |
| **“Comprobar estado”**<br><br>Bateriaren maila, estalduraren gradua eta ibiltaritzan dagoen edo ez esango dizu telefonoak. |
| **“Comprobar batería”** |
| **“Comprobar cobertura”** |
| **“Comprobar red”** |
| **“Comprobar mi número de teléfono”** |
| **“Desactivar avisos“**<br><br>Telefonoak desaktibatu egingo du ahots komandoen abisuetarako soinua (adib. “**Diga un comando**”). Abisuak berriro aktibatzeko, esan “**Activar avisos**”. Telefonoak ekintza berretsiko du “Avisos activado” esanez. |

**Iradokizuna:**

- Aldi berean gidako sarrera baten izena esan dezakezu eta zenbakia idatzi dezakezu. Adibidez, esan “**Llamar** *Juan Pérez móvil*” John Smith izenarekin gordetako telefono mugikorraren zenbakira deitzeko.
- Esan zenbakiak abiadura eta bolumen normalean, zenbaki bera ezberdin ahoskatuz. Ez gelditu zenbakien artean.
- Ahots-komandoaren laguntzarako, sakatu **ahots tekla**, ondoren sakatu **Laguntza**.

## ahots komandoen ezarpenak

Ahots komandoen ezarpenak aldatu ditzakezu.

1 ⓞ sakatuta mantendu ahots-komandoen zerrenda irekitzeko.

2 Sakatu **Ezarpenak**.

3 Aukeratu azpiko ezarpenetako bat:

| ahots komando ezarpenak |
| --- |
| **Aukerak**<br>Aukeren zerrendak aktibatu edo desaktibatu. Telefonoak ahots-komandoak egiaztatzeko aukera zerrendak erabiltzen ditu, galdetu egiten dizu: “**Ha dicho...**”, ondoren aukeren zerrendako osagai bat emanez. |
| **Sentiberatasuna**<br>Zure telefonoa ahots komando bat onartzeko edo ezesteko prestatu. |
| **Digituz markatzea**<br>Erakutsi telefonoari esaten dituzun zenbakiak ulertzen. |
| **Soinua**<br>Egokitu soinu ezarpenak zure ahots komandoetara. |
| **Honi buruz**<br>Ikusi ahots komandoen software informazioa. |

# kanpoko bistaratzea

Telefonoa ixten duzunean, kanpoko bistaratzeak data, egoera adierazleak eta jasotzen diren deien edo beste gertaera batzuen jakinarazpenak erakusten ditu. Telefono egoera adierazleen zerrenda bat izateko, ikusi 22. orrialdea. Egoera adierazle batzuk ez dira kanpoko bistaratzean agertzen.

Pantailako ukipen teklak honakoetarako agertzen dira:

- dei galduak (ikus 41. orrialdea).
- testu mezu berriak (ikus 55. orrialdea).
- alarmak (alarma ezartzeko, zoaz 74. orrialdera).

irudi, musika eta bideoen ukipen teklak erabiltzeko, zoaz *Hasiera bizkorreko gidara*.

**Iradokizuna:** Kanpoko pantailan irekitako programek aktibo jarraitzen dute telefonoa ireki eta itxi arren. Kanpoko pantailako programa guztiak **ixteko**, erdiko aukeraketa tekla **sakatuta mantendu**.

# esku libre hizlaria

Telefonoaren esku libre hizlariaren bidez, telefonoa belarrian izan gabe deitu dezakezu.

Dei batean zehar esku-librekoaren bozgorailua pizteko, **Bozgorailu** (erabilgarri badago), edo **Aukerak** > **Tel. bozgor. aktibatuta** sakatu. Pantailak **Tel. bozgor. aktibatuta** erakusten du itzaltzen duzun arte edo deia amaitu arte.

Telefonoa itxita duzula dei galdu bat erantzuteko, zoaz 41. orrialdera.

**Oharra:** Telefonoa autoko kit batera edo aurikularretara konektatuta dagoenean edo telefonoa itxita dagoenean, esku libre hizlaria ez da ibiliko.

# kodeak eta pasahitzak

Zure telefonoaren lau zenbakidun **desblokeatzeko kodea** honela lehenetsita dago: **1234**. Sei zenbakidun **segurtasun kodea** honela lehenetsita dago: **000000**. Zure zerbitzari-hornitzaileak kode hauek aldatu ez badituz, zuk aldatu beharko zenituzke:

**Bilatu:** ◆ > **Ezarpenak** > **Segurtasuna** > **Pasahitz berriak**

Zure **SIM PIN** ere aldatu dezakezu, edo debeku-pasahitzak.

**Desblokeatzeko kodea ahazten baduzu:** **Idatzi desbl. kodea** gonbitean, saiatu 1234 edo zure telefono zenbakiko azkeneko lau zenbakiak sartzen. Honela ez badabil, sakatu ◆ eta sartu horren ordez sei zenbakidun segurtasun kodea.

**Beste koderik ahazten baduzu:** Segurtasun kodea, SIM PIN kodea, PIN2 kodea edo debeku-pasahitza ahazten baduzu, jo zerbitzu-hornitzailearengana.

# telefonoa blokeatu eta desblokeatu

Telefonoa blokeatu dezakezu besteek erabil ez dezaten. Telefonoa blokeatzeko edo desblokeatzeko, lau zenbakidun desblokeatzeko kodea behar duzu.

Telefonoa **eskuz blokeatzeko**: Sakatu ◆ > **Ezarpenak** > **Segurtasuna** > **Telefonoa blokeatu** > **Blokeatu orain**, ondoren sartu lau zenbakidun desblokeatzeko kodea.

Telefonoa itzaltzen duzunean **automatikoki blokeatzeko**: Sakatu ◆ > **Ezarpenak** > **Segurtasuna** > **Telefonoa blokeatu** > **Automat. blokeatu** > **Aktibatuta**, ondoren sartu lau zenbakidun desblokeatzeko kodea.

Blokeatutako telefono batean larrialdi deiak egin ditzakezu (ikusi 42. orrialdea). Blokeatutako telefono batek deiak edo mezuak jasotzean hots edo bibratu egiten du, **baina erantzuteko desblokeatu egin behar duzu**.

# pertsonalizatu

## telefono hiztuna

Deiak jasotzean, telefonoak deitzailearen zenbakia edo izena “esan” dezake tonu bat erreproduzitu ordez. Era berean, telefonoak **Gidaliburua** gidan behera zoazen neurrian izenak irakur ditzake baita digituak ahoskatu ere markatzen dituzun heinean. Funtzio hauek aktibatu edo desaktibatzeko:

**Bilatu:** > **Ezarpenak** > **Pertsonalizatu** > **Soinu ezarpenak** > **Telefono hiztuna**

Telefonoak gidan gordetako edozein kontakturen izena ahoskatzen du, eta bestela, gordeta ez dauden kontaktuen telefono zenbakiko digituak esaten ditu.

**Oharra:** **Telefono hiztuna** aktibatuz gero, telefonoak **ez du** ezarritako tonu **Estiloa** erabiltzen jasotzen diren deietarako.

## ordua eta data

Telefonoak automatikoki ordu-zona, ordua eta data eguneratu ditzake. Ordua eta data egutegian erabiliko ditu.

Ordu-zona, ordua eta data sarearekin sinkronizatzeko: > **Ezarpenak** > **Hasierako konfigur.** > **Ordua eta data** > **Automat. eguneratu** > **Ordua eta ordu eremua** sakatu. Telefonoak automatikoki ordu-zona eta data eguneratzea nahi ez baduzu, aurrekoaren ordez **Ordua soilik** aukeratu.

Ordu-zona, ordua eta data eskuz ezartzeko, **Automat. eguneratu** desaktibatu: > **Ezarpenak** > **Hasierako konfigur.** > **Ordua eta data** > **Ordu eremua**, *ordua* edo *data* sakatu. Ordu-zonen zerrendako hiri batera joateko, teklatuko teklak sakatuz idatzi hiriaren izenaren lehendabiziko letra.

**Iradokizuna:** Errazago topatu ahal izan ditzazun, hiru ordu-zona aukeratzeko, ◆ > Tresnak > **Mundu erlojua** sakatu. **Mundu erlojua** irekitzen duzunean, **Aukerak** sakatu dezakezu ordu-zonen **Maparen bista** ikusteko.

**Pantaila nagusirako** erloju analogiko edo digitala aukeratzeko, ◆ > **Ezarpenak** > **Pertsonalizatu** > **Hasierako pantaila** > **Erlojua** sakatu.

# horma-papera

Hasierako pantailan, ezarri argazki, irudi edo animazio bat horma-paper (hondo) gisa.

**Oharra:** Zure *gaiak* telefonoaren horma-papera ere ezar dezake (37. orrialdea).

**Bilatu:** ◆ > **Ezarpenak** > **Pertsonalizatu** > **Horma papera**

| aukerak | |
|---|---|
| **Irudia** | ◇ gora edo behera sakatu irudi bat aukeratzeko, edo **Hutsik** aukeratu horma-paperik ez ezartzeko. |
| **Diseinua** | **Erdian** aukeratu irudia pantailaren erdian ezartzeko, **Mosaikoa** aukeratu irudia pantailan zehar tamaina txikian errepikatzeko, edo **Pantailara egokitu** aukeratu irudia pantailaren azalerara egokitzeko. |

# pantaila babesa

Ezarri argazki, irudi edo animazio bat pantaila babes gisa. Pantaila babesa tapa irekita dagoela denbora jakin batean ekintzarik burutzen ez bada agertzen da.

**Oharra:** Zure *gaiak* telefonoaren pantaila babesa ere ezar dezake (37. orrialdea).

**Iradokizuna:** Bateriaren iraupena luzatzeko, itzali pantaila babesa.

**Bilatu:** ◆ > Ezarpenak > Pertsonalizatu > Pantaila babesa

| aukerak | |
|---|---|
| **Irudia** | ◆ gora edo behera sakatu irudi edo animazio bat aukeratzeko, edo **Hutsik** aukeratu pantaila babesik ez ezartzeko. |
| **Aktibazio tartea** | Pantaila babesa agertzeko egon beharreko ekintzarik gabeko tartearen iraupena aukeratu.<br><br>**Oharra:** Pantaila babesa ez da agertuko argia edo pantaila itzalita badituzu (zoaz 37. orrialdera). |

# gaiak

*Telefono gaia* zure telefonoan aplikatu dezakezun irudi eta soinu fitxategi multzoa da. Gai gehienek horma papera, pantaila babesa, bistaratzeko azala eta deietarako tonua dituzte.

Baliteke zure telefonoak gai batzuk ekartzea, eta gai gehiago deskargatu ditzakezu.

Gai bat aplikatzeko, ◆ > Multimedia > **Gaiak** > *gaia* sakatu

Gai bat deskargatzeko, 77. orrialdea ikusi

**Deskargatu dituzun gaiak ezabatzeko**, ◆ > Multimedia > **Gaiak** sakatu, gaira joan, eta **Aukerak** > **Ezabatu** edo **Ezabatu guztiak** sakatu

**Deskargatu dituzun gaien aurrebista ikusteko**, ◆ > Multimedia > **Gaiak** sakatu, gaira joan, eta **Aukerak** > **Aurrebista** sakatu.

# pantailaren itxura

**Oharra:** **Bateria aurreztea** funtzioak telefonoari leku ilun batean ez bazaude, bistaratzea edo teklak ez argitzeko agintzen dio. Funtzio hau aktibatzeko, ◆ > Ezarpenak > **Hasierako konfigur.** > **Bateria aurreztea** > **Aktibatuta** sakatu.

Telefonoaren pantailaren itxura eta diseinua ezartzen dituen **azala aukeratzeko**: > **Ezarpenak** > **Pertsonalizatu** > **Azala** sakatu. Zure *gaiak* telefonoaren azala ere ezarri dezake (37. orrialdea).

Zure pantailaren distira **ezartzeko**: > **Ezarpenak** > **Hasierako konfigur.** > **Argitasuna** sakatu

Bateriaren bizitza aurrezteko, telefonoa erabiltzen ez duzunean, zure teklatuko **atzeko argia** itzali egiten da. Telefonoa irekitzen duzunean edo edozein tekla sakatzen duzunean atzeko argia piztu egiten da. Atzeko argia itzali arte telefonoak zenbat itxaroten duen ikusteko > **Ezarpenak** > **Hasierako konfigur.** > **Atzeko argia** sakatu.

Bateriaren bizitza luzatzeko, telefonoa erabiltzen ez duzunean zure pantaila itzali daiteke. Telefonoa irekitzen duzunean edo edozein tekla sakatzen duzunean pantaila piztu egiten da. Pantaila itzali aurretik telefonoak zenbat itxaroten duen ikusteko > **Ezarpenak** > **Hasierako konfigur.** > **Bistaratze muga** sakatu.

# erantzuteko aukerak

Jasotako dei bat erantzuteko era ezberdinak izan ditzakezu. Erantzun aukera bat aktibatzeko edo desaktibatzeko:

**Bilatu:** > **Ezarpenak** > **Dei jasoen konfigur.** > **Erantzun-aukerak**

| aukerak |
| --- |
| **Multitekla**<br>Edozein tekla sakatuz erantzun. |
| **Ireki, erantzuteko**<br>Telefonoa irekiz erantzun. |

# deiak

Deiak egiteko eta erantzuteko, ikusi *Hasiera bizkorrerako gida*.

## dei abisua itzali

Deia erantzun aurretik dei abisua itzaltzeko bolumen teklak sakatu ditzakezu.

## azken deiak

Telefonoan jasotako eta egindako deien zerrendak gordetzen dira, konektatu gabeko deiak barne. Azken deiak lehendabizikoak dira zerrendan. Dei zaharrenak ezabatu egiten dira dei berriak gehitzen diren heinean.

**Bilatu:** ◆ > **Azken deiak**, ondoren sakatu [*] edo [#] **Egindako deiak**, **Dei jasoak** edo **Huts egindako dei** modura aldatzeko.

**Lasterbidea:** Sakatu pantaila nagusiko [⊙] egindako deien zerrenda ikusteko.

Dei batera joan. Dei baten ondoren ✓ agertzeak deia konektatu egin zela esan nahi du.

- Zenbakira deitzeko, sakatu [⊙].
- Deiaren xehetasunak ikusteko (ordua eta data, adibidez), sakatu *erdiko tekla* ◆.
- **Azken deiak menua** ikusteko, sakatu **Aukerak** Menuaren barne egon daitezke:

| aukerak |
| --- |
| **Iragazi honen bidez** |
| Egindako, jasotako edo galdutako dei guztiak aukeratu. |

| aukerak |
| --- |
| **Gorde** |
| **Zk.** eremuan zenbakia daraman gidako sarrera bat sortu. |
| **Bideo deia** |
| Zenbakira bideo dei bat egin. |
| **Ezabatu** |
| Sarrera ezabatu. |
| **Ezabatu guztiak** |
| Zerrendako sarrera guztiak ezabatu. |
| **Ezkutatu identif. / Erakutsi identif.** |
| Hurrengo deian zure ID erakutsi edo ezkutatu. |
| **Bidali mezua** |
| **Nori** eremuan zenbakia daraman testu mezu berria ireki. |

| aukerak |
| --- |
| **Bidali ahots mezua** |
| Ahots mezua grabatu eta zenbakira bidali. |
| **Gehitu digituak** |
| Zenbakiaren ondoren digituak gehitu. |
| **Erantsi zenbakia** |
| Gidatik edo azken deien zerrendatik zenbaki bat gehitu. |
| **Bidali tonuak** |
| Zenbakia sarera DTMF tonu gisa bidali. **Oharra:** Aukera hau **deien bitartean** agertzen da soilik. |
| **Oharretarako koad.** |
| Zenbakia testu editorean ireki. |

| aukerak | |
|---|---|
| **Deiaren iraupena** | |
| Deiaren iraupenaren informazioa ireki. | |
| **Deiaren kostua** | |
| Deiaren kostuaren informazioa ireki. | |

## telefonoa itxita duzula dei bat erantzun

Telefonoa itxita duzula dei bat galtzen duzunean, kanpoko pantailak **Huts egindako dei** erakusten du.

1 pantailako tekla sakatu **Huts egindako dei** zerrenda ikusteko, edo sakatu jakinarazpena baztertzeko.

2 Pantailako ▼▲ teklak sakatu dei batera joateko.

- Bozgorailua erabiliz (edo entzungailua konektatuta duzula) zenbaki batera **deitzeko**, pantailako tekla sakatu. Atxikitako dei bat amaitzeko, tekla adimenduna sakatuta mantendu.

